



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

VI. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2025eko maiatzaren 28, 29 eta 30a
Bilbo, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)



Aitortu-PartekatuBerdin 4.0

GIZA ZIENTZIAK ETA ARTEA

**Unibertsitate ikasleen antsietatea:
Euskararen bitartez ikastearen
erronkak**

Irene Alonso-Arruabarrena

69-76 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.vi.01.08>

ANTOLATZAILEA



BABESLEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



LAGUNTZAILEAK



Unibertsitate ikasleen antsietatea: Euskararen bitartez ikastearen erronkak

Irene Alonso-Arruabarrena

Micaela Portilla Ikerguna, Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU/UPV), Vitoria-Gasteiz
irene.alonsoa@ehu.eus

Laburpena

Bigarren hizkuntzaren jabetze prozesuan, antsietatea eragin esanguratsua duen aldagai afektibo bat da. Artikulu honek Euskal Autonomia Erkidegoko testuinguruan jarriko du arreta; izan ere, euskara hizkuntza gutxitua eta ikasle askoren bigarren hizkuntza denez, hizkuntza hau ikasteak antsietatea eragin dezake. Horrenbestez, ikerketa honen helburu nagusia ikasleek unibertsitatean euskararen bidez ikasten dituzten irakasgaietan espermentatu dezaketen antsietatea aztertzea da. Lagina 216 unibertsitate-ikasleek osatzen dute eta datu kuantitatiboan bitartez bildu ziren datuak. Emaitzek adierazten dute partaideek zenbait egoeratan antsietatea senti dezaketela eta desberdintasun esanguratsuak ere aurkitu dira aztergai diren hiru aldagaien arabera (generoa, ama-hizkuntza eta euskara-gaitasuna).

Hitz gakoak: bigarren hizkuntzaren jabetzea; antsietatea; euskara; unibertsitatea.

Abstract

In the process of second language acquisition, anxiety is an affective variable that has a significant impact. This article focuses on the context of the Basque Autonomous Community; since Basque is a minority language and the second language for many students, learning this language may trigger the emergence of anxiety. Therefore, the main aim of this research is to examine the anxiety that students may experience in subjects learnt through Basque at university level. The sample consists of 216 undergraduate students, and data were collected through quantitative methods. Results indicate that participants may feel anxiety in various situations, and significant differences were also found based on three variables under study (gender, mother tongue and Basque proficiency).

Keywords: second language acquisition; anxiety; Basque; university.

1. Sarrera eta motibazioa

Hizkuntzaren ikaskuntza prozesu konplexutzat har daiteke, non ez diren soilik gaitasun kognitiboak inplikitzen, faktore linguistikoek, sozialek, ingurumenekoe eta afektiboe ere eragina izan ditzaketelako. Bigarren hizkuntzaren jabetzearen (*Second Language Acquisition* or SLA) arloko ikerketek azken hamarkadetan arreta handia jarri dute banakako aldeetan (*Individual differences* or ID), hizkuntza ikasteko prozesuan ikasleen artean aldakortasun handia dagoela ikusita (Dörnyei, 2005). ID faktore hauen azterketaren baitan, dimentsio afektiboak ikasleen emozioak eta jarrerak aztertzen ditu, eta ikertzaileen interesa bereziki piztu du, hizkuntzak ikasteko arrakastan duen eragin erabakigarria dela eta. Izan ere, emozioek ikaskuntza nabarmenki erraztu edo oztopatu dezakete; emozio positiboak (motibazioa, gozamina, jakin-mina) prozesuan lagungarriak izan daitezke eta negatiboak (antsietatea, asperdura), aldiz, hizkuntza horren praktika eta garatu beharreko gaitasunak mugatu ditzakete.

Antsietatea SLAn gehien ikertu den emozioetako bat izan da, hizkuntza klasean maiz gertatzen den eta intentsitate handia duen esperientzia delako (Gkonou et al., 2017), baina ikerketa kopurua asko gutxitzen da hizkuntza gutxituen kasuan. Antsietateak hizkuntza ikasketan izan ditzakeen ondorio kaltegarriak askotan hausnartu dira, batez ere ingelesaren inguruan, eta emaitza batzuek erakutsi dute antsietate-maila handiek ikasleen konfiantza eta komunikatzeko borondatea murriztu ditzaketela, eta horrek euren errendimenduan eragina izan dezakeela.

Hortaz, bigarren hizkuntza (H2) bat ikasten edo erabiltzen ari garenean, ohikoa da antsietatea, urduritasuna eta lotsa sentitzea, segurtasun falta eta akatsak egingo ditugun beldur egon gaitetzakeelako. Euskal Autonomia Erkidegoaren (EAE) testuinguruan, euskara ikasten ari diren askok sentimendu horiek bizi ditzakete, batez ere euskaldun berriek edo ingurune erdaldunetik datozenek, jatorrizko hiztunekin euskaraz komunikatzerakoan. Euskal Estatistika Erakundearen (Eustat, 2021) arabera, EAEko biztanleriaren %70ren lehen hizkuntza (H1) gaztelania da eta sarritan, euskara H2 gisa ikasten eta erabiltzen da eskolatan. Horrez gain, euskara EAEko hizkuntza ofizialetako bat izan arren, hizkuntza gutxitua da eta hizkuntzarekiko esposizio mugatua izateak ikasleen antsietatea areagotu dezake (Cenoz eta Santos, 2017). Horrenbestez,

artikulu honek kontestu honetan ikasleek unibertsitatean euskararen bidezko ikaskuntzan esperimentatu dezaketen antsietateari buruzko ikerketa bat aurkeztuko du.

2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

Oro har, antsietatea tentsio eta kezka sentimendu gisa definitzen da, eta aditu batzuek hizkuntza-ikaskuntzarekin lotutako antsietate mota bereizi zuten (Horwitz et al., 1986). Egile hauek adierazi zuten, ikasleek hizkuntza berri bat ikastea edo erabiltzean bizi dituzten kezka eta erreakzio emozional negatiboak islatzen ditu antsietate mota honek. Zehazki, atzerriko hizkuntza baten ikasketa prozesuan azalarazitako antsietate-maila neurtzeko *Foreign Language Classroom Anxiety Scale* (FLCAS) deituriko galdetegia garatu zuten, ikerketa enpirikoetan zabalki erabili eta testuinguru desberdinetan egokitua izan den tresna, hain zuzen ere.

Aurreko azterlanen arabera, ikasleek ahozko jarduerak maiz aipatzen dituzte antsietate gehien sortzen dieten egoeren artean, batez ere guztiz menperatzen ez duten hizkuntza batean. Egia esan, hizkuntza horretan gaitasun mugatua izateak oztupo nabarmena eragin dezake komunikazioan, irakaslearen edo ikaskideen aurrean haien parte hartzea modu egokian ez egiteko daukaten beldurra dela eta (Cenoz eta Santos, 2017; Liu, 2006). Hala ere, Dewaele (2007) azaldu zuen jendaurrean hitz egiteak berez antsietate gehiago sor dezakeela beste komunikazio-egoera batzuen aldean, hala nola lagunekin edo ezezagunekin modu pribatuan hitz egitean, eta joera hau ezagutzen ditugun hizkuntza guztietan errepika daitekeela, H1ren kasuan, ordea, antsietate-maila apalagoa izanik.

Ikerketek etengabe erakutsi dute antsietateak hizkuntza-gaitasuna, errendimendua eta lorpen akademikoak kaltetzen dituela, eta honako hauetan islatu da: ikasturteko notetan, hizkuntza-proba estandarizatuetakoa emaitzetan eta beste ebaluazio metodologia batzuetan (Teimouri et al., 2019). Era berean, eremu kognitiboari dagokionez, antsietate-maila altuek lan-oroimenaren garapena oztopa dezakete; izan ere, ikasleen arreta huts egiteko beldurretara bidera dezakete eta, ondorioz, jardueren prozesamenduaren eraginkortasuna murriztu.

Antsietatea hainbat kausak eragin dezakete, ikasleen barneko eta kanpoko faktoreak kontuan hartuta. Aztertu diren barneko faktore batzuk honako hauek izan dira: ikasleek akatsak egiteko daukaten beldurra, autoestimu baxua izatea edota izaerarekin lotuta dauden ezaugarri batzuk, hala nola neurotizismoa, introbertsioa eta perfekzionismoa (Dewaele, 2002). Bereziki, ikasleen hizkuntza-gaitasunak duen efektua esanguratsua izan daiteke; hainbat ikerketak erakutsi dutenez, gaitasun-maila baxuagoa duten ikasleek antsietate gehiago esperimentatzen dute, baina hizkuntza hobeto menperatu ahala, antsietate hori gutxiagotzen doa (Liu, 2006; Santos et al., 2017). Oro har, ikasleek maila baxua izateak segurtasun eta konfiantza falta eragin diezaieke eta horrek euren komunikazio-antsietatea areagotu dezake. Gainera, antsietateak ikasleen benetako gaitasunaren pertzepzioak desitxura ditzake, hau da, antsietate-maila handia duten ikasleen artean, beren hizkuntza-trebetasunak gutxiesteko joera aurkitu izan da (MacIntyre et al., 1997).

Bestalde, kanpoko faktoreei dagokienez, hauek testuinguruarekin eta ikaskuntza baldintzekin lotuta daude. Antsietatea sorrarazi dezaketen kausa nagusien artean, irakasleek izaera zorrotza izatea edo akatsak gogor zuzentzea, ikaskideen arteko lehiakortasuna eta konparazio negatiboak, talde-presioa eta jardueren konplexutasuna aipatu dira (Cenoz eta Santos, 2017; Liu et al., 2024). Halaber, hizkuntza ikasten den kontestuak eta hizkuntzarekiko esposizioak ere antsietatean eragin erabakigarria izan dezakete. Adibidez, Jiménez Catalán eta Ruiz de Zarobe (2009) hizkuntzak ikasteko bi testuinguru nagusi bereizi zituzten: testuinguru naturala eta akademikoa. Euskararen egoera gutxiaren alorrean, hain zuzen, Sánchez Carrión (1991) defendatzen zuen hizkuntza finkatzeko eskolan ikastea ez dela nahikoa eta ezinbestekoa dela eremu funtzionalan erabiltzea; hau da, hizkuntza benetako komunikazio tresna bihurtzeko gune natural eta errealean erabili behar da. Ildo berean, Iurrebaso (2024) soziolinguistikak ere azpimarratu zuen ikasleek euren euskararen ezagutza areagotu dezaten, hizkuntzaren erabilera hezkuntza sistematik kanpoko eremuetara zabaltzea funtsezkoa dela, hala nola lagunarteko harremanetara, aisialdira eta lan mundura, besteak beste. Horrez gain, badirudi hizkuntza irakaskuntza formalaren bidez soilik ikasteak eta ikasgelatik kanpoko inguruetan ez erabiltzeak ikasleengan antsietatea sorraraz dezaketela (Alonso-Arruabarrena & Lasagabaster, 2023; Dewaele et al., 2008).

Esparru honetan, garrantzi handia izan duen beste aldagai bat ikasleen eleaniztasuna izan da. Gaitasun faktorearen antzera, antsietatearen eta eleaniztasun-mailaren arteko erlazioa negatiboa

da, hots, zenbat eta hizkuntza gehiago ezagutu, orduan eta baxuagoa izan daiteke antsietate-maila, hiztunen esperientzia eta hizkuntza-errepertorioa zabalagoa delako. Esaterako, EAEn burututako ikerketa batean, Santos, Cenoz eta Gorterre (2017) ondorioztatu zuten euskararen eta gaztelanian gaitasun handiagoa zuten hiztunek ingelesez hitz egitean antsietate gutxiago esperimentatzen zutela, eleaniztasun-maila baxuagoa zutenen aldean. Urte berean, Cenoz eta Santosek (2017) aurkeztu zuten beste ikerketa batean ikusi zuten H1 gaztelania zuten hiztun batzuek euskaraz komunikatzen zirenean antsietatea sentitzen zutela. Euskara eskolatik kanpo gutxiago erabiltzeak eragiten zien euskaraz hitz egitean epaituak sentitzea edo behar adinako erraztasunaz ez jarduteko kezka izatea, besteak beste. Beraz, aipatzekoa da antsietatearen ikerkuntzan, ikasleen hizkuntza-errepertorioak, bai txikitatik ikasitako hizkuntzak bai ingurunean erabiltzen direnek, zerikusi handia duela.

Generoa ere SLAko ikerkuntzan maiz kontuan hartu den faktorea izan da. Antsietatearen ikuspegitik, generoarekin lotuta ikusi diren emaitzak kontraesankorrak izan dira. Zenbait ikertzaileen arabera, emakumeek gizonek baino antsietate-maila handiagoa izaten dute (Dewaele et al., 2016), orokorrean akatsak egitearen beldur handiagoa eta errendimenduaren inguruko itxaropenak betetzeko nahia izan dezaketelako. Hala ere, kontrako emaitzak ere aurkitu dira, zenbait testuingurutan gizonek antsietate handiagoa senti dezaketela erakutsi baita, batez ere hizkuntzan trebetasun nahikorik ez dutela sumatzen dutenean (Kitano, 2001). Beste alde batetik, badira azterlan batzuk generoaren arabera desberdintasun esanguratsurik aurkitu ez dutenak (Dewaele et al., 2008). Desadostasun hau neurri batean testuinguru soziokulturalen eraginari egotz dakioke, generoarekin lotutako rolak eta jarrerak tokiaren arabera aldatzen baitira. Oro har, emaitza hauek agerian uzten dute generoaren eta antsietatearen arteko harremana konplexu dela eta kontestu soziokulturalak ere eragina izan dezaketela. Generoaren eragina ez da modu errazean definitu daitekeen zerbait; izan ere, zenbait kasutan badu eragina, baina testuinguruaren arabera, efektua aldakorra izan daiteke. Horregatik, beharrezkoa da aldagai hau testuinguru zehatz honetan aztertzea, antsietatearen eta generoaren arteko harremanaren ikuspegi osatuago bat izateko.

EAEko testuinguruan, ikasleak haur hezkuntzatik hasten dira euskara ikasten; Iurrebasoren (2024) arabera, euskara hizkuntza gutxitua izanik, hezkuntzak euskararen erabilera sustatzea eta belaunaldi berrien artean euskararen transmisioa bermatzea du helburu. Gainera, hezkuntza-sistemak euskarazko irakaskuntza indartzen du etapa guztietan, unibertsitate-mailara arte, eta ikasle askok euren gradua euskaraz ikastea aukeratzen dute. Hala ere, nahiz eta urte askoz euskara ikasten aritu, ikasle heldu askok antsietatea sentitzen dute hizkuntza erabiltzerakoan (Cenoz eta Santos, 2017). Ikerketa honen helburua EAEko ikasleek goi-mailako ikasketetan dituzten esperientzien inguruan hausnarketa bat egitea da eta zehazki, euskaraz ikasten ari diren irakasgaietan esperimentatu dezaketen antsietatea aztertzea. Honekin batera, antsietate gehien sorrarazi dezaketen egoerak identifikatuko dira, eta antsietatearen azterketan eragin esanguratsua duten hainbat aldagai aintzat hartuko dira. Arlo honetan egin diren azterlan gehienak atzerriko hizkuntzak ikastearen ingurukoak izan ohi dira, baina ikerketa honen berrikuntza da hizkuntza gutxitu baten erabilera eta ikaskuntzan sortzen diren erronkak ikertuko direla, bereziki unibertsitate mailan. Ikerketa galderak honako hauek dira:

- 1) Antsietatea sentitzen al dute ikasleek unibertsitatean euskararen bitartez ikasterakoan? Zein egoeratan esperimentatzen dute antsietate-mailarik altuena?
- 2) Nola desberdintzen dira antsietate-mailak ikasleen generoaren, hizkuntza-errepertorioaren eta euskara-gaitasunaren arabera?

3. Ikerketaren muina

Azterlan hau ikerketa-proiektu handiago baten parte da, non ingelesaren eta euskararen arteko konparaketa egiten den; hala ere, artikulu honek euskararen inguruko emaitzetan bakarrik jarriko du fokua, antsietateak euskararen erabilera kontestu formaletan jokatzen duen rola aztertzeko. Hurrengoko ataletan, proiektuan erabilitako metodologiaren xehetasunak deskribatuko dira, eta horrekin batera, emaitza nagusiak aurkeztuko dira.

3.1 Parte-hartzaileak

Ikerketa honetan, 216 ikaslek hartu zuten parte EAEko hiru unibertsitate desberdinetatik: Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU), Deustuko Unibertsitatea (DU) eta Mondragon Unibertsitatea (MU). Lagina osatzeko, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko campusetatik zetozen partaideak bildu ziren. Ikasleak gradu eta arlo desberdinetan egiten ari ziren euren ikasketak, zehazki: Zientziak, Ingeniaritza eta Arkitektura, Gizarte eta Lege Zientziak, Arteak eta Giza Zientziak eta Osasun Zientziak. Unibertsitateko gradu-maila guztietako ikasleak ziren, baina ikerketan parte hartzeko baldintza gutxienez irakasgai bat euskaraz ikasten egon behar zirela izan zen.

1. taulak parte-hartzaileen ezaugarriak batzen ditu; laginetik 133 emakumezkoak ziren (%61,6) eta 82 gizonezkoak (%38), eta haien batez besteko adina 19,87 urte zen (d. tip.=1,02). H1ri dagokionez, gaztelania zuten ikasleek osatzen zuten talde handiena, 85 ikasle (%39,4), H1 euskara zutenak 64 izan ziren (%29,6), eta bi hizkuntzak zituztenak, berriz, 62 ikasle (%28,7). Azkenik, euskararen gaitasunari begira, 126 ikaslek (%58,3) euskararen erdi-mailako gaitasuna zutela adierazi zuten eta 85ek (%39,4) goi-mailakoa zutela.

1. taula. Partaide kopurua eta ezaugarriak

Partaideak	Generoa		H1			Euskara-maila	
	Emakumeak	Gizonak	Euskara	Gaztelania	Elebidunak	Erdi-maila	Goi-maila
Zenbatekoa	133	82	64	85	62	126	85
Portzentajea	%61,6	%38	%29,6	%39,4	%28,7	%58,3	%39,4
Guztira	216						

3.2 Tresnak

Ikerketa hau burutzeko, teknika kuantitatiboak erabili ziren; hain zuzen ere, antsietateari buruzko galde-sorta baten bitartez bildu ziren datuak. Galde-sorta hau Horwitz eta besteren (1986) FLCAS tresnaren egokitzapen bat da, eta EAEko euskararen ikaskuntzaren testuingurua islatzeko itemak moldatu ziren. Proiektu nagusian erabilitako galde-sortan, partaideei antsietatea eragin dezaketen 34 egoera aurkeztu zitzaizkien: 17 ingelesez ikasteari buruzkoak eta beste 17 egoera berberak euskaraz ikastearekin lotuta. Dena den, analisi honetan, euskararekin lotutako erantzunetan oinarrituko gara. Galderak 5 puntuko Likert eskala erabiliz erantzun ziren, non 1 "guztiz desados" eta 5 "guztiz ados" adierazten zuten. Item batzuk alderantziz kodifikatu ziren erantzunetan joera automatikoak saihesteko eta ikasleek galderak arretaz irakurtzen zituztela ziurtatzeko. Ondorioz, galderen norabide positiboak eta negatiboak bateratzen dira, eta item bakoitzeko puntuazioa antsietate-mailarekin lotzen da. Horrela, euskararen bidezko ikaskuntzan antsietate-mailarik altuena jaso duten egoerak identifikatuko dira. Horrekin batera, eskala honen barne-sendotasuna neurtu zen, eta Cronbachen alfa-koefizienteak .92ko balioa eman zuen, ikerketa honetan erabili den tresnaren baliozkotasuna egiaztatzen duena.

Horrez gain, partaideei buruzko datu demografiko, akademiko eta linguistikoak jaso ziren lehen aipatutako aldagaien eragina analizatu ahal izateko. Horretarako, oinarritzko informazio hau jasotzeko hainbat galdera ere erantzun zituzten galde-sortan. Galde-sorta euskaraz edo gaztelaniaz betetzeko aukera izan zuten; 144 ikaslek (%66,7) euskaraz bete zuten eta 72k gaztelaniaz (%33,3).

3.3 Emaitzak

Lehenengo ikerketa-galdera erantzuteko, ikasleei unibertsitatean euskaraz ikasten zituzten irakasgaietan sentitzen zuten antsietateari buruz galdetu zitzairen. 2. taulan orokorrean eta galde-sortako hainbat itemetan adierazi zuten antsietatearen batezbestekoak eta desbideratze tipikoak jaso dira. Esan bezala, gutxieneko puntuazioa 1 da eta gehienekoa 5.

Oro har, emaitzek aditzera ematen dutenez, unibertsitate-ikasleek euskararen bidez ikasterakoan esperimintatzen zuten antsietate-maila baxua zen (bb.= 2,57, d. tip.= 0,80). Hala ere, taulan antsietatea sorrarazten zieten hainbat egoera aurki daitezke, eta puntuazio altuena jaso zuten egoerak nagusiki komunikazioarekin lotuta zeuden, zehazki aurkezpenetan (bb.= 3,00, d.

tip.= 1,34), klasearen aurrean hitz egiterakoan bb.= 2,89, d. tip.= 1,37) edo parte hartzerakoan (bb.= 2,85, d. tip.= 1,38). Bestalde, antsietate-maila baxuena honako kasuetan agertu zen: klaseko ikaskideen euskara-gaitasuna altuagoa zenean (bb.= 2,29, d. tip.= 1,39), ikaskide kopurua handia zenean (bb.= 2,08, d. tip.= 1,18) eta euskaraz hitz egiteko zailtasunak nabaritzen zituztenean (bb.= 2,02, d. tip.= 1,23).

2. taula. Euskararen bidezko irakaskuntzan esperimentatutako antsietatea

	Bb.	D. tip.
Antsietate-maila orokorra	2,57	0,80
Itemak		
3. Euskaraz aurkezpenak egiterakoan urduri jartzen naiz.	3,00	1,34
10. Urduri jartzen naiz klasearen aurrean euskaraz hitz egiten dudanean.	2,89	1,37
4. Ez dut asko parte hartzen euskaraz ikasitako irakasgaietan, pertsona lotsatia naizelako.	2,85	1,38
14. Ez naiz gaizki sentitzen klaseko kideek euskaraz nik baino hobeto hitz egiten badute.	2,29	1,39
5. Eroso sentitzen naiz euskaraz ikasten ditudan irakasgaietan nahiz eta ikasle asko egon.	2,08	1,18
11. Euskaraz hitz egitea kostatzen zait.	2,02	1,23

Bigarren ikerketa galderan, ikasleen generoaren, hizkuntza-errepertorioaren eta euskara-gaitasunaren eragina analizatu da. Lehendabizi, 3. taulan generoaren arabera dauden antsietate-desberdintasunak ikus daitezke. Emaitzek erakusten dute emakumeek (bb.= 2,68, d. tip.= 0,81), orokorrean, gizonak (bb.= 2,37, d. tip.= 0,77) baino antsietate-maila altuagoa izan zutela. Alde hori estatistikoki esanguratsua izan zen, baina genero aldagaiaren efektuaren tamaina txikia izan da: $t(213) = 2,809$, $p = 0,005$, Cohen-en $d = 0,39$.

3. taula. Antsietatea eta generoa

Generoa	Bb.	D. tip.	t	Esang	Ef. tamaina
Emakumeak	2,68	0,81	2,809	0,005	0,39
Gizonak	2,37	0,77			

Ikasleen hizkuntza-errepertorioari dagokionez, faktore bakarreko ANOVA analisia egin da hiru H1 taldeen arteko desberdintasunak aztertzeko. 4. taulan ikus daitekeenez, taldeen artean diferentzia estatistikoki esanguratsua dago eta efektuaren tamaina ertaina izan da: $F(2, 208) = 11,759$, $p = 0,000$, Eta-squared $\eta^2 = 0,10$. Tukeyren post hoc testak agerian utzi du antsietatean diferentzia esanguratsuak daudela H1 euskara eta H1 gaztelania hiztunen artean ($p = 0,000$), baita H1 euskara hiztunen eta elebidunen artean ere ($p = 0,037$). Hortaz, datu hauen arabera, euskara H1 zuten ikasleek antsietate-mailarik baxuena zuten.

4. taula. Antsietatea eta H1

H1	Bb.	D. tip.	F	Esang	Ef. tamaina
Euskara	2,23	0,66	11,759	0,000	0,10
Gaztelania	2,85	0,82			
Elebidunak	2,57	0,80			

Aztergai den azken aldagaia euskararen gaitasun-maila da. 5. taulako emaitzen arabera, erdi-mailako gaitasuna (bb.= 2,37, d. tip.= 0,77) zuen taldeak antsietate gehiago esperimentatu zuen goi-mailako gaitasuna (bb.= 2,37, d. tip.= 0,77) zuenak baino, eta bi taldeen arteko desberdintasuna estatistikoki esanguratsua izan da: $t(209) = 2,314$, $p = 0,022$. Hala ere, gaitasunaren efektuaren tamaina txikia izan da: Cohen-en $d = 0,33$.

5. taula. Antsietatea eta euskara-gaitasuna

Euskara-gaitasuna	Bb.	D. tip.	t	Esang	Ef. tamaina
Erdi-maila	2,66	0,82	2,314	0,022	0,33
Goi-maila	2,40	0,76			

4. Ondorioak

Azterlan honetan, EAEko testuinguruan ikasleek unibertsitate-mailan euskaraz ikastearekin lotuta senti dezaketen antsietatea ikertu da. Hasteko, aipatu beharra dago azterketa hau galdetegiaren datuetan oinarritzen dela, eta horregatik, lortutako emaitzak tentuz interpretatu behar dira.

Lehen ikerketa-galderari erreparatuta, emaitzek iradokitzen dute ikasle hauen antsietate-maila baxua zela; izan ere, aurreko hezkuntza-etapetan ere euskara izan da haien irakaskuntza-hizkuntza nagusia. Aipatzekoa da ikasleak hizkuntza urte askoz ikasten aritu arren, ikasgelan euskaraz komunikatzeak gehienbat antsietatea eragiten ziela. Emaitza hauek bat datoz aurreko ikerketekin (Horwitz et al., 1986; Liu, 2006), ahozko jarduerak antsietate gehien sorrazten duten egoerak izaten dira eta. Hizkuntza batean komunikatzeko beharrak akatsak egitearen beldurra eta epaituak izatearen kezka sortzen ditu. Bereziki, jendaurrean hitz egiteak, esaterako aurkezpenetan edo klaseko debateetan, urduritasuna areagotu dezake edozein hizkuntzatan eta horren ondorioz, ikasle askok klasean parte hartzeari uko egin diezaioke. Hala ere, urduri sentitu arren, partaideek aipatu zuten euskaraz hitz egiteko ez zutela zailtasunik nabaritzen, eta gutxien kezkatzen zituzten egoerak klaseko ikasle kopurua eta ikaskideek euskara-maila altuagoa izatea zirela. Aurreko ikerketek, ordea, erakutsi dute ikasle batzuek antsietatea sentitzen dutela ingurukoen gaitasuna norberarenarekin alderatzen dutenean (Cenoz eta Santos, 2017; Liu et al., 2024) eta, era berean, ikasle asko euren aurkezpena entzuten egoteak ere eragin handia duela euren errendimenduan eta urduritasun-mailan (Raja, 2017).

Bigarren ikerketa-galdera erantzuteko, hiru aldagaiek ikasleen antsietatean izan dezaketen eragina analizatu da. Generoari dagokionez, desberdintasun esanguratsuak aurkitu dira eta emakumeek gizonetako baino antsietate gehiago izan zutela ikusi da. Dewaele eta besteek (2016) egindako ikerketan azaltzen denez, emakume askok ikasgelan parte hartzerakoan, badirudi kezka gehiago izaten dituztela, bereziki akatsak egiteak eta ikaskideen edo irakaslearen iritziek sortzen dituzten presioen aurrean. Hori dela eta, emakumeek hizkuntza ikaskuntzan, oro har, segurtasun falta eta antsietate handiagoa espermentatu dezakete. Dena den, nahiz eta emakume eta gizonen arteko aldeak esanguratsuak izan, gure emaitzetan generoaren efektua txikia izan da.

Horrekin batera, partaideen hizkuntza-errepertorioak eragin esanguratsua izan du euren antsietatean eta taldeen artean ikusitako aldeak moderatuak izan dira. Espero zitekeen moduan, euskara H1 zuten ikasleek antsietate-maila baxuena erakutsi zuten; izan ere, eguneroko bizitzan eta ingurune naturaletan euskararekiko esposizio handiagoa izan dezakete, eta horrek konfiantza handiagoa ekar dezake hizkuntzaren erabileran (Cenoz eta Santos, 2017). Bestalde, H1 gaztelania hitzunez, eremu akademikotik kanpo euskara erabiltzeko aukera mugatuagoak izateak, aldiz, euskara erabili behar zutenean urduriago sentiaraztea eragin ziezaiekeen. Gainera, Cenoz eta Santosek (2017) azpimarratu zutenez, solaskideak rol garrantzitsua jokatzen du, sarritan H1 gaztelania hitzunak urduriago sentitzen baitira jatorrizko hitzunez euskaraz komunikatzerakoan, ebaluatutako izatearen sentipena dela eta. Elebidunen kasuan, hauek gaztelaniako hitzunen pareko antsietate-maila izan zuten; hala ere elebidunen artean antsietate gutxiago espermentatzea espero zen, hizkuntza-errepertorio zabalagoa izateaz gain, euskara euren H1etako bat izanik. Horrenbestez, ikerketa honek aurkitu duen elebidunen aldeko abantaila eza aurreko ikerketetan (Santos et al., 2017) eleaniztasunak antsietatean izan duen eragin positiboarekin kontraesanean dago. Beste arrazoi bat izan daiteke, gaztelania nagusi den gizaratean, euskara sektore desberdinetan, hala nola hezkuntzan, gizaratean, administrazio publikoan eta hedabideetan, sustatzeko planak bultzatu arren (Cenoz, 2009; Lasagabaster, 2017), euskaraz hizkuntza gutxitua izaten jarraitzen duela. Kaleko erabilerari dagokionez, Iurrebasok (2024), inkesta soziolinguistikoa eta kale neurketek baliatuta, ondorioztatu zuen, nahiz eta haur eta gazte askok eskolan euskara ikasi, kalean erdarara jotzen dutela sarriago, batez ere aisialdian eta lagunartean, eta nerabezarotik aurrera euskararen erabilera asko jaisten dela. Izan ere, euskal hitzun gehienak eremu erdaldunetan bizi dira, eta horrek euskaraz aritzeko mugak dakartzala

azpimarratu zuen, komunikatzeko ohiturek gehienbat erdara erabiltzera bultzatzen baitute, euskararen gaitasunaren garapena oztopatu dezakeena. Era berean, ikusi zuen elebidunen artean gehiengoak direla erdaraz errazago moldatzen direnak euskaraz errazago moldatzen direnak baino, eta horrek euskararen erabilera murriztea dakar. Hori dela eta, euskara erabiltzeko joera eta aukerak mugatuagoak direnez eta elebidunek gaztelania gehiago menperatzen ohi dutenez, euskaraz hitz egiterakoan antsietatea sentitzea gerta daiteke.

Azkenik, ikasleek euskaraz zuten gaitasunaren arabera neurtu dira euren antsietate-mailak euskararen bidez ikasterakoan. Ikusi dugun bezala, gaitasunaren efektua txikia izan arren, antsietate-maila altuagoak gaitasun-maila baxuagoekin nabarmenki erlazionatuta zeuden, eta euskaraz erdi-mailako gaitasuna zuten ikasleek urduriago sentitzen ziren goi-mailakoak baino. Badakigu euskaraz gaitasun handiagoa zuten ikasleek, neurri txikiagoan bada ere, antsietatea sentitzen zutela, eta esperientzia hauek sakonago behatzeko eta antsietatea eragiten dieten egoerak modu zehatzagoan identifikatzeko, etorkizuneko ikerketetan partaideak elkarriketatzea lagungarria izango litzateke. Edonola ere, emaitza hauek beste ikertzaileek diotenarekin bat datoz (Liu, 2006; Santos et al., 2017); hots, hizkuntza batean trebetasun gutxiago duten ikasleek ez dute oraindik behar adinako konfiantza garatu, eta hitzak aurkitzeko edo esaldiak zuzen egituratzeko zailtasunak komunikazio-blokeoak sor ditzake, eta horren ondorioz, antsietatea areagotu daiteke. Horri gehitu behar zaio ikasleak sarritan kezkatzen direla hizkuntza erabiltzerakoan, besteek haien hizkuntza-trebetasunak aztertuko edo epaituko dituztela pentsa dezaketelako (Alonso-Arruabarrena & Lasagabaster, 2023). Beraz, zenbat eta esperientzia eta praktika gehiago izan, orduan eta segurtasun handiagoa lortuko dute hizkuntza erabiltzerakoan, haien antsietatea murrizteko lagungarria izango dena.

5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Lan honetatik abiatuta, euskara ikasteaz sor daitekeen antsietatea murrizteko estrategiak garatzea funtsezkoa da. Lehenik eta behin, generoari buruzko gai hau lantzea beharrezkoa izango litzateke; izan ere, ikerketan ikusi diren genero-desberdintasun esanguratsuek argi erakusten dute gizon eta emakumeek euskaraz ikasterakoan esperientzia desberdinak izan ditzaketela. Horrenbestez, garrantzitsua da hezkuntza-sisteman, generoaren arabera beharrian eta estrategiak aintzat hartzea. Esate baterako, emakumeen artean akatsak egitearen garrantzia gutxitzeko teknikak inplementatu daitezke euren segurtasuna eta konfiantza areagotzeko. Honekin batera, antsietatea pairatzen duten ikasleen egoera eta beharrei egokitzen den laguntza indibidualizatua eskaintzea ere lagungarria izan daiteke.

Ondoren, euskaraz hitz egitea eta aurkezpenak egitea gehien kezkatzen zituzten egoerak izan dira; hortaz, ahozko jardueretan arreta handiagoa jartzea eta komunikazio-trebetasunak garatzeko formakuntza esplizituagoa eskaintzea onuragarria izan daiteke ikasleentzat. Halaber, ikasgelan espazio seguruak sortzeak lagundu diezaieke ikasleei euren ideiak eta iritziak adierazteko arrisku gutxiago nabari dezaten eta horrela, komunikatzeko borondatea indartu dadin.

Modu berean, euskararen ikaskuntzan sortutako antsietateari aurre egiteko euskararen erabilera sustatzea gomendagarria izango litzateke. Euskararen ezagupena nabarmen igo egin da azkenengo hamarkadetan, baina erabilera oraindik sustatzeko beharra nabaria da (Bier eta Lasagabaster, 2022; Eusko Jaurlaritza, 2024). Hau horrela izanik, euskara praktikatzeko aukera gehiago izateak eta gizarte-harremanetan euskara modu naturalean txertatzeak hizkuntzan dituzten gaitasunak hobetzea dakar. Horren ondorioz, ikerketa honetan eta aurrekoetan ikusi dugun bezala, euskaraz komunikazio-trebetasun maila altuagoa garatzeak ikasleek senti ditzaketen beldurak eta antsietatea murriztuko litzuke.

6. Erreferentziak

- Alonso-Arruabarrena, I., & Lasagabaster, D. (2023). An analysis of language anxiety in English and Basque-Medium Instruction: A study with primary school students. *Vigo International Journal of Applied Linguistics*, 20, 9-48.
- Bier, A., & Lasagabaster, D. (2022). What has changed over 18 years? Future teachers' language use and attitudes towards multilingualism in the Basque Autonomous Community. *Language and Education*, 37(6), 675-697.

- Cenoz, J. (2009). *Towards multilingual education: Basque educational research from an international perspective*. Bristol: Multilingual Matters.
- Cenoz, J., & Santos, A. (2017). Komunikazio-antsietatea euskara bigarren hizkuntza dutenengan. *Fontes Linguae Vasconum (FLV)*, 124, 369-387.
- Dewaele, J.M. (2002). Psychological and sociodemographic correlates of communicative anxiety in L2 and L3 production. *International Journal of Bilingualism*, 6(1), 23-38.
- Dewaele, J.M., MacIntyre, P.D., Boudreau, C., & Dewaele, L. (2016). Do girls have all the fun? Anxiety and enjoyment in the foreign language classroom. *Theory and Practice of Second Language Acquisition*, 2(1), 41-63.
- Dewaele, J.M., Petrides, K.V., & Furnham, A. (2008). Effects of Trait Emotional Intelligence and Sociobiographical Variables on Communicative Anxiety and Foreign Language Anxiety Among Adult Multilinguals: A Review and Empirical Investigation. *Language Learning*, 58(4), 911-960.
- Dörnyei, Z. (2005). *The Psychology of the Language Learner: Individual Differences in Second Language Acquisition*. Mahwah, NJ: Lawrence Erlbaum Associates.
- Euskal Estatistika Erakundea (Eustat) (2021). *Población de la C.A. de Euskadi por ámbitos territoriales, primera lengua y lengua hablada en casa*. Berreskuratuta 2025eko otsailaren 9a, https://www.eustat.eus/elementos/ele0021900/poblacion-de-la-ca-de-euskadi-por-ambitos-territoriales-primer-lengua-y-lengua-hablada-en-casa/tbl0021956_c.html -tik.
- Eusko Jaurlaritza. (2024). *Seventh Sociolinguistic Survey 2021*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Saila. Berreskuratuta 2025eko otsailaren 9a, https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eas_ikerketak/en_def/adjuntos/Seventh_Sociolinguistic_Survey_2021.pdf -tik.
- Gkonou, C., Daubney M., & Dewaele, J.M. (2017). *New Insights into Language Anxiety: Theory, Research and Educational Implications*. Bristol: Multilingual Matters.
- Horwitz, E.K., Horwitz, M.B., & Cope, J. (1986). Foreign Language Classroom Anxiety. *The Modern Language Journal*, 70(2), 125-132.
- Iurrebaso, I. (2024). *Gako berrien bila: Hizkuntza gutxituen jarraipena, ordezkapena eta indarberritzea neurtzeko demolinguistikazko tresna metodologikoak garatzen: Euskal Herrirako aplikazio praktikoa*. Euskaltzaindia.
- Jiménez Catalán, R. M., & Ruiz de Zarobe, Y. (2009). The receptive vocabulary of EFL learners in two instructional contexts: CLIL versus non-CLIL instruction. In Y. Ruiz de Zarobe & R. M. Jiménez Catalán (arg.), *Content and language integrated learning: Evidence from research in Europe* (81.-92. or.). Bristol, UK: Multilingual Matters.
- Kitano, K. (2001). Anxiety in the College Japanese Language Classroom. *The Modern Language Journal*, 85(4), 549-566.
- Lasagabaster, D. (2017) Language Learning Motivation and Language Attitudes in Multilingual Spain from an International Perspective. *The Modern Language Journal*, 101(3), 583-596.
- Liu, M. (2006). Anxiety in Chinese EFL students at different proficiency levels. *System*, 34, 301-316.
- Liu, M., Wu, X., & Yang, F. (2024). Emotions in English language classrooms among Chinese top university students. *Scientific Reports*, 14(1), 20081.
- MacIntyre, P.D., Noels, K.A., & Clément, R. (1997). Biases in self-ratings of second language proficiency: The role of language anxiety. *Language Learning*, 47, 265-287.
- Raja, F.U. (2017). Anxiety Level in Students of Public Speaking: Causes and Remedies. *Journal of Education and Educational Development*, 4, 94-110.
- Sánchez Carrión, J. M. (1991). *Un futuro para nuestro pasado: claves de la recuperación del euskara y teoría social de las lenguas*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Santos, A., Cenoz, J., & Gorter, D. (2017). Communicative anxiety in English as a third language. *International Journal of Bilingual Education and Bilingualism*, 20(7), 823-836.
- Teimouri, Y., Goetze, J., & Plonsky L. (2019). Second language anxiety and achievement: A meta-analysis. *Studies in Second Language Acquisition*, 41(2), 363-387.

7. Eskerrak eta oharrak

Ikerketa honetan, EHU, DU eta MU ikasleen parte-hartzea eta ekarpena eskertzen dira. Lan honek Espainiako Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren (laguntza-zenbakia: PID2020-117882GB-I00) eta Eusko Jaurlaritzaren (laguntza-zenbakia: IT1426-22) laguntza jaso du.